

**“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: desesko-  
latzea eta eskola-absentismoa eraztea Bizkai Lurraldean” egitasmoan AURREI-  
KUSITA DAGOEN SEGIMENDUKO BATZORDEAREN TXOSTENA**

**IKASTURTEA: 2006-2007**

**HEZKUNTZA SAILA (Bizkaiko Lurralde Saila)  
FORU ALDUNDIA (Gizarte-Ekintza Saila)  
EUDEL**

**AURKIBIDEA**

	Orrialdea
1. SARRERA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	4
3. DATUAK JASOTZEA	4
3.1 Hitzien definizio operatiboa: absentismo, deseskolatzea, ab- sentismo metatua eta absentismo zuzendua	4
3.2 Datuak jasotzeko ezarritako prozedura	5
4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DI- MENTZIOA BIZKAI LURRALDEAN	6
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	6
4.2 Haur Hezkuntza	9
4.3 Absentismoa eta deseskolatzea banatzea Ikuskaritzako es- kualdeka	10
4.4 Ikastetxe kaltetuak	10
4.5 Datuen Eboluzioa	11
5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA	12
5.1 Ikastetxeetako zuzendaritzen ekarpenak	12
5.2 OGZen eta beste udal zerbitzu batzuen ekarpenak	15
5.3 Haur Zerbitzuaren ekarpenak (Bizkaiko Foru Aldundia)	18
6. ONDORIOAK-SINTESIA	21
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	26
8. ESKER ONAK	28
9. ERANSKINAK	
9.1 – I. Eranskina: Ikastetxeetako zuzendaritzen, OGZen eta beste Udal eta Foru Aldundiko Zerbitzu batzuen ekarpe- nen orriak.	30

## 1. SARRERA

*“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa eraztea Bizkai lu-*

*rraldean*” egitasmoan aurreikusita dagoen segimenduko Batzordeak landu zituen iragan hiru ikas-  
turteetan dagozkien txostenak Programa horretan sartuta dauden hiru Erakundeen jokabideari  
buruz: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte-  
Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horren bidez jakin ahal izan da ab-  
sentismo eta deseskolatzearen tamaina Oinarrizko Hezkuntzako ikasleetan (Lehen Hezkuntza  
eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) Bizkai Lurraldean, baita Haur Hezkuntzako etapakoetan  
(3-6 urte) ere. Bestalde, sartuta dauden lagunen iritzia ere jaso da, eta faktore hori gakoa da ho-  
betzeko proposamenik egokienak ezartzeko xedez.

Segidan aurkezten den txostenak –lagarren urteari dagokio (2006-07 ikasturtea) Programa ezarri  
zenez geroztik– jakinarazi nahi du absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa ez ezik eboluzioa  
ere, zeren eta aurreko ikasturteetan jasotako datuek balio baitute erreferente gisa konparaketak  
ezartzeko asmoz. Konparaketak horien ondorioz esan daiteke aurtean inoiz baino absentismoko  
kasu gehiago zuzendu direla eta agertzerik larrienak (absentismoak ikasturte osoan zehar iruan du  
edo parte luze batean) ere sekulan baino gutxiago izan direla. Horrek orok indarra ematen digu  
benetan lanari oso gogoz ekiteko arazo hori ezerezteko xedez. Bestalde, datuak jasotzeak –gero  
eta gehiago, gero eta zehatzagoak– lehenago bezala lagundu egingo digu arazoa hobeki fokaliza-  
tua edukitzen, eta horren ondorioz, hori gainditzeko esku-hartzean eraginkorrak izaten; izan  
ere, orain ere pentsatzen dugu ikastetxera sarri ez joateak zaitasun handia sortzen duela ikasleen  
garapen pertsonal, sozial eta akademikoan, eta geroan baztertua eta gizartetik kanporatzea eragi-  
ten duela.

Gainera, aurreko ikasturtean esaten genuenez, urteotan zehar bizitako esperientziak, praktika  
onen azterketak eta ikasketa konparatuek agertu egiten dute eskola absentismoa beste azaro  
batzuen “detektatzaile” on bezala dabilela, hala nola tratu txarra, berdinen arteko erasoak, osasun  
arazoak... Horrek, litekeena bada, berretsi egiten du berehala jokatu beharra dagoela, arazoa aur-  
kitu orduko.

Sartuta dauden lagunen iritzia –Programa bultzatu duten hiru Erakundeei dagozkie– ere jasotzen  
da txosten honetan. Iritzi hori oso argi eta sendoa da: lanean jarraitu beharra agertzen du era ko-  
ordinatuan hezkuntzarako benetako eskubidea bermatzeko xedez eta, horren ondorioz, ez era-  
biltzetik etor litezkeen desberdintasun egoerak saiheste aldera. Helburu horri ere nahi zioten  
erantzun Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-  
Ekintzako Ahalduak eta EUDELeko Gizarte-Kontuen arduradunak, 2003ko apiri-  
lean “*Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa eraztea Bizkai  
lurraldean*” egitasmoa aurkeztu zutenean, hiru Erakundeek euren gain hartuta.

Helburuak nola dabilzan aurrera egiaztatze aldera eta sartuta dauden Erakunde bakoitzari ho-  
bekuntzako urratsak eskaini ahal izateko gogoz, Programak berak aurreikusten du segimenduko  
Batzorde bat egotea. 2006-2007 ikasturteari dagokion txosten honek nahi du Batzorde horrek be-  
re gain hartu dituen eginkizunak betearazi.

## **2. PROGRAMAREN HELBURUAK**

Hona hemen programa hori martxan jarrita lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, deseskolatzea eta eskola absentismoa saihestuz.
- Gizarte toki baztertuetatik datozen familien portaera sustatzea hiru eta sei urte bitarteko adingabeak eskolatzeko.
- Familia horien eskariak lehenetsi eta saritzea hiru urtetik beharako seme-alabak Haur Eskoletan sartzea xede dutenean.
- Kontu horren larritasuna sentsibilizatzea sartuta dauden profesionaleri, gizaritari oro har eta zeregin horretan diharduten lagun guztiei.
- Sartuta dauden erakundeek koordinaturik lan egitea (Justiziako Saila, Emplegua eta Gizarte-segurantza; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Udalak; Foru Aldundia eta Fiskaltza) prebentziorako eta deseskolatze eta eskola absentismoaren aurka esku hartzeko.
- Deseskolatze eta eskola absentismoaren ebaluatzea, baita martxan jarriko diren esku-hartzeak ere.

Txosten honetako atalek erantzuna eman nahi diete helburu formulatuei, baina bereziki azpimarratzen da problemaren hedadura susatzea; izan ere, zenbat eta hobeki jakin, orduan eta egoera hobean egongo gara esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezten eta, azken finean, konpontze aldera.

### 3. DATUAK JASOTZEA

#### 3.1. Hitzen definizio operatiboa: absentismo, deseskolatzea, absentismo metatua eta absentismo zuzendua

Ekartzen diren datuak interpretatzeko txosten honetan jasotzen da deseskolatze, eskola absentismo, absentismo metatu eta absentismo zuzendu hitzen definizio operatiboa:

- **Deseskolatzea:** derrigorrezko eskolatzeko adineko adingabeen (6-16 urte) egoera da, Ikastetxean matrikulatu gabe daudelarik. Kontzeptu horretan ere sartuta dago adingabeen egoera justifikatu gabeko hutsegiteen %100 daudenean matrikulatuta egonagatik ere.
- **Eskola Absentismo:** Eskola absentismotzat jotzen da Ikastetxera era jarraituan ez joatea justifika dezakeen batere ziorik gabe, onartuta edo biltzatuta familiaren beraren aldetik edo ikaslearen beraren gustura, aurrenerabe eta nerabeen kasuan. Kontzeptu honen definizio operatiboan absentismoko tasa jotzen da justifikatu gabeko hutsegitearen portzentajetzat hilabeteko denboraldian. Txosten honetan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiagotzat jotzen da. Ab-

sentismo kontzeptua aplikatuko da, prebenitzeko gogo batekin eta serberdintasunen konpentsatzailea Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinetik aurrera.

- **Absentismo metatua:** tarteka jasotzen da absentismo metatuaren portzentajea ikasle absentisten artean ikasturtean zehar. Hona hemen tarteen esangura:
  - %25: joan gabeko egunen %25eraini ikasturtean.
  - >%25-%50: joan gabeko egunen %25 baino gehiagotik %50era ikasturtean.
  - >%50-%75: joan gabeko egunen %50 baino gehiagotik %75era ikasturtean..
  - >75%: joan gabeko egunen %75 baino gehiagotik %99ra ikasturtean. (hutegiteen %100 eta deseskolatzea baliokide dira).
- **Absentismo zuzendua:** absentista izan ondoren absentismoko erregistririk ez izatera pasatu diren ikasleen kopuru eta portzentajea jasotzen dira 2007ko apiril, maiatz eta ekianean gutxienez.

### 3.2. Datuak jasotzeko segitu den prozedura

Programan ezarritako protokoloa segitu da. Hau da, hilero bost eguna baino lehenago Ikastetxeek igorri dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara eta Udaletxeetara dagozkien erregistroko orriak ikasleen izenekin beteta, gorago azalduta dauden hitzen definizio operatiiboaren arabera hilero justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago dute.

Erregistroak jaso ondoren, Ikastetxeko Ikuskariak aztertuko ditu eta aplikazio informatikoan sartuko horretarako landu denez. Aplikazio horren diseinuari esker aukera eman zaigu Ikastetxe eta ikasleen kopurua jakiteko 2006-2007 ikasturtean zehar absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat izan dutenena.

Azkenik, parte-hartzaileen iritzia ere jaso da (Ikastetxeetako zuzendaritzak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo beste Udal Zerbitzu batzuk; eta Haurtzaro eta Nerabegaroko Zerbitzu espezializatuak Bizkaiko Foru Aldundikoak). 1. Eranskinean batzen dira iritzi datuok jasotzeko balio izan duten dokumentuak.

## 4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO ARAZOAREN DIMENTZIOA BIZKAI LURRALDEAN

### 4.1. OINARRIZKO HEZKUNTZA (LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH)

#### 4.1.1. Ikasleen kopuru osoa portaera absentista edo deseskolatuarekin:

Absentismo eta deseskolatzeko kasuak batuta, 1.106 da kopuru osoa. 29 gutxiago dira iazko ikasturtean baino.

Kopuru horrek esan nahi du oinarrizko irakaskuntzako ikasleen %1,2 eta portzen-

tajea iazko ikasturtekoa bera da.

#### 4.1.2. Ikasleen kopuru osoa portaera absentistarekin:

Orotara 1.039 ikaslek izan dute portaera absentista. Titulartasun eta dauden hezkuntza zikloaren arabera, honela banatzen dira:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
25.129	388	1,5	15.867	446	2,8	28.299	77	0,3	20.429	128	0,6

#### 4.1.3. Ikasle deseskolatuen kopurua

Honela banatzen dira deseskolatzeko egoeran dauden 67 ikasleak:

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasleak	Deseskola..	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%	Ikasleak	Deseskola.	%
25.129	19	0,07	15.867	40	0,25	28.299	0	0	20.429	8	0,04

#### 4.1.4. Ikasleen kopuru osoa portaera absentista edo deseskolatuarekin

LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absent. eta desesk.	%	Ikasleak	Absent. eta desesk.	%
53.428	484	0,9	36.296	622	1,7

#### 4.1.5. Absentismo metatua. Hutsegiteen portzentajea ikasturtean zehar

##### 4.1.5.1. Ikastetxe Publikoak

LEHENA								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
388	345	88,9	38	9,8	4	1	1	0,3

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten portzentajerik txikiena Ikastetxe publikoetan (88,9%) %25erainoko tartean kokatzen da.

Azken tarteko absentisten kopuruari (1) deseskolatuak gehituz gero, (19), egoera hauetako portzentajea –problema honen agerpenik larrienak dira– %4,9ra igoko litzateke.

DBH								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
446	295	66,1	103	23,1	37	8,3	11	2,5

DBHn, nahiz eta absentismoaren portzentajerik handiena ere (%66,1) tartean %25eraino heltzen den, halarik ere, hori jaitsi egiten da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Otera, nabarmen areagotzen da absentisten kopurua (%2,5) azken tartean (>%75).

Lehenago bezala, azken tarteko absentisten kopuruari (11) deseskolatuak gehituz gero, (40), egoera hauetako portzentajea %10,5era igoko litzateke..

#### 4.1.5.2. Ikastetxe Pribatu Itunduak

LEHENA								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
77	70	90,9	5	6,5	1	1,3	1	1,3

Gauza bera gertatzen da Ikastetxe Publikoetan. Ikasle absentisten portzentajerik handiena (%90,9) lehen tartean kokatzen da, hots, euren absentismo metatua ikasturtean zehar hutsegiteen %25eraino izan da.

Azken tartean ez dago metatzerik deseskolatuak, ez baitago halakorik; hori dela eta, absentismoaren agerpenik larrienak %1,3ri eusten dio.

DBH								
GUZ-TIRA	%25		>%25-%50		>%50-%75		>%75	
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%
128	93	72,7	24	18,7	11	8,6	0	0

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn iruzkindu berri den joera mantentzen da, hezkuntza maila honetarako Ikastetxe publikoetan, ildo honetan: ikasle absentisten portzentajerik handiena (%72,7) tarterik apalenean dela; hala eta guztiz ere, hemen ere gertatzen da areagotze garrantzitsu bat, Lehen Hezkuntzaren aldean, absentisten kopuru eta portzentajearen hurrengo taarreetan.

Azken tartean absentistari ez dagoenez, deseskolatuek esan nahi dute %5,9.

#### 4.1.6. Absentismo zuzendua

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK			
LEHENA		DBH		LEHENA		DBH	
Absentisten kop: 388		Absentisten kop: 446		Absentisten kop: 77		Absentisten kop: 128	
Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%	Zuz. Kop.	%
246	63,4	246	55,1	52	67,5	76	59,4

Aurreko koadroko datuek izateari uzten dioten edo gutxienez ikasturteko azken hiruhilekoan ez diren ikasle absentisten kopuru absolutu eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo horren zuzenketaren zioak: Erakundeen esku-hartzeak arazo hori gainditzeko xedez, edota portaera absentista eragin bide duen erroaren araberrako zirkunstantzia desagertzea; izan ere, absentismoaren definizio operatioboaren barruan sartzen baitira hainbat zioengatik egunen %20an justifikatu gabe huts egiten dutenak, hilabetean bakarrik izan den arren.

Datu hauen bidez ikus dezakegu arazoaren dimentsiorik larriena, hots, ikasturtean zehar portaera absentistari sendo eusten diotenena esku-hartze guztiak gorabehera. Kopuru hori ateratze aldera, guztizkoei aurreko koadroko datuak kentzen zaizkiei, baita txosten honetako 4.1.2 atalean daudenei ere, eta Lehen Hezkuntzako 167 ikaslara heltzen da (%0,3) eta DBHko 252 ikaslara (%0,7).

#### 4.1.7. Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuetara, Foru Aldundira eta Fiskaltzara bideratutako Número de espedienteen kopurua.

	Bideratutako espedienteen kop.	% (1)	% (2)
<b>Oinarrizko Gizarte-Zerbitzuak</b>	650	48,3	0,55
<b>Foru Aldundia</b>	20	1,5	0,02
<b>Fiskaltza</b>	30	2,6	0,03

(1) % absentismo eta/edo deseskolatzeko kasu guztien gainean. Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.

(2) % derrigorrezko irakaskuntza eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztien gainean Fiskaltzaren kasuan portzentajea derrigorrezko irakaskuntzaren egoeraren gainean bakarrik egiten da.



Hartara, 30 kasu dira Ministerio Fiskalera bideratutakoak, eta erakunde horrek esku-hartzeko protokolo bera segitu du: familia eta seme-alaba absentista edo deseskolatuari hitzordua ematea, hiru hilabeteen segimendua gauzatzea eboluzioa balioesteko, Ikastetxeak ekarritako informazioa kontuan edukirik. Hiruhileko segimendu horri eusten zaio arazoak dirauen bitartean, derrigorrezko eskolatzea amaitu arte, eta horrela gertatuz gero, ekin behar zaio salaketa egiteari gurasoen aurka, familian seme-alabak bertan behera uzten dituztelakoan daudenean. Halako salaketa bost familiaren aurka egin da ikasturte honetan.

Ikasturteon Fiskaltzara bideratutako 30 kasu huez gain, Fiskaltzak aurreko ikasturteetan bideratu zituzten beste 32ren segimenduari ere eusten die.

#### 4.2. HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
Ikasleak	Absentistak	%	Ikasleak	Absentistak	%
14.233	198	1,4	15.002	41	0,3

Oharra: adin hauei dagozkien datuak ere eskaintzen dira, baina, halari ere, adin txiki horietatik eskolatzea sustatzeko bakarrik erabiliko dira, gizartean baztertuak dauden herri-guneen kasuetan batez ere.

#### 4.3. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEA BANATZEA IKUSKARITZAKO ESKUALDEKA

Guztira	Eskualdeak			
	1	2	3	4
118.959 (1)	22.124 (%18,6)	28.571 (%24)	39.889 (%33,5)	28.375 (%23,9)
1.345 (2)	36 (%2,7)	41 (%3)	825 (%61,3)	443 (%33)
<b>Absentismoko indizea</b>	(%0,2)	(%0,1)	(%2,1)	(%1,6)

- (1) *Guztizko horretan Bizkai lurraldeko Oinarrizko Irakaskuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta bigarren zikloko Haur Hezkuntzako ikasle guztiak zenbatzen dira. Guztizko hori Ikuskaritzako lau eskualdeetan banatzen da taulak adierazten duen bezala. 1. eskualdea: Durangaldea, Lea-Artibai eta Busturialdea. 2. eskualdea: Uribe. 3. eskualdea: Bilbo eta Nerbioi Garaia. 4. eskualdea: Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.*
- (2) *Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen guztizkoa Oinarrizko Irakaskuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Bizkaiko Haur Hezkuntzan.*

Ikus daitekeenez, banatze hori eskualdeka eginda ez da berdintsua, baizik eta 3 eta 4. eskualdeetan batez ere.

#### 4.4. IKASTETXE KALTETUEN KOPURUA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
252	82	32,5	137	30	21,9

**Portaera absentista eta/edo deseskolatuekin 6 ikasle edo gehiago dituzten ikastetxeak**

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK		
GUZTIRA	Kaltetuak	%	GUZTIRA	Kaltetuak	%
252	44	17,5	137	9	6,6

Bigarren koadro honetako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoko arazoen kaltea duten Ikastetxeen irudi errealistagoa eskaintzen dutelakoan gaude. Lehenengo koadroan islatzen dira 2006-07 ikasturtean zehar gutxienez ikasle absentista edo deseskolatu bat izan duten Ikastetxe guztiak.

#### 4.5. DATUEN EBOLUZIOA AZKEN URTEETAN

IKASTURTEAK	ABSENT+DESESK OIN. HEZ.	ABSENTISMO HAUR HEZ..	IKAST. KALTETUAK > 6 kasu		FISKALTZA- RA BIDERA- TUAK
			PUBLIKOAK	PRIBATU ITUN.	
2003-2004	1.074 (%1,2)	201 (%0,76)	38 (%15,1)	6 (%4,4)	8 (%0,63)
2004-2005	1.133 (%1,3)	197 (%0,72)	39 (%15,5)	5 (%3,6)	28 (%2,5)
2005-2006	1.135 (%1,3)	257 (%0,91)	41 (%16,3)	5 (%3,6)	29 (%2,5)
2006-2007	1.106 (%1,2)	239 (%0,82)	44 (%17,5)	9 (%6,6)	30 (%2,6)

Aurreko taulak argi eskaintzen digu datuen eboluzioa segimendu horretan jardun izan duten lau ikasturteetan zehar. Absentismoko erregistroa pixka bat gutxiagotu izanak pent-sarazi egiten digu arlo horretan egiten den lan sendo eta etengabea hasi dela emaitza posi-tiboak lortzen.

Absentismo zuzenduari dagokiolarik, esan behar da hurrengo taula horrek eboluzio osoa jasotzen duela 2004-2005 ikasturteaz geroztik; izan ere, datu hori ez zen jaso 2003-2004 ikasturtean, hain zuzen.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHENA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua	LEHENA Absentismo zuzendua	DBH Absentismo zuzendua
2004-2005	%42	%49	%57	%44
2005-2006	%42,4	%44	%52,5	%34,6
2006-2007	%63,4	%55,1	%67,5	%59,4

Taula horretan ikus daitekeenez, ikasturteon berriro zuzendu diren kasuen portzentajea nabarmen izan da gehiago aurrekoan baino.

Jarraian azken tartean metatutako absentismoaren eboluazioa jasotzen da (Ikastetxera ikasturteko lanegunen %75ean joaten ez diren ikasle absentisten portzentajea jasotzen du, deseskolatuekin batera), informazio hau jaso den hiru ikasturteetan zehar.

	IKASTETXE PUBLIKOAK		IKASTETXE PRIBATU ITUNDUAK	
	LEHENA Absentismoa %75etik %100era	DBH Absentismoa %75etik %100era	LEHENA Absentismoa %75etik %100era	DBH Absentismoa %75etik %100era
2004-2005	%6,5	%17,1	%6,8	%24,6
2005-2006	%6,6	%19	%15,6	%15,5
2006-2007	%4,9	%10,5	%1,3	%5,9

Aurreko taulak sartzen du absentismo eta deseskolatzearen eboluzioko ikuspuntu baiko-rra EAEn; izan ere, ikus daitekeenez arazoaren dimentsiorik larriena (ikasturte osoan zehar praktikoki dirauenean), nabarmen gutxiagotu da.

Hala eta guztiz ere, datuok adierazten digute, aurreko ikasturteetan bezala, arazo horren dimentsioa, txikia hezkuntza sistemako ikuspuntutik, ez dela banakotik, zeren eta eskola porrota eragiten duen egoera hori baita lagun horien geroko bazterketa sozialaren zioetarikoa. Aurrekoa J. Delorsek (1996) zuzentzen zuen Nazioarteko Batzordeak XXI. mendeko hezkuntzari buruz UNESCOri egindako Txostenean islatzen da:

*“Muchos países, sobre todo entre los países desarrollados, padecen en la actualidad un fenómeno muy desconcertante para las políticas educativas: paradójicamente la prolongación de la escolaridad ha agravado más que mejorado la situación de los jóvenes socialmente más desfavorecidos o en situación de fracaso escolar. Incluso en los países en los que los gastos de educación figuran entre los más elevados del mundo, el fracaso y la deserción escolares afectan a una proporción considerable de alumnos. Producen una división entre dos categorías de jóvenes, que resulta tanto más grave cuanto que persiste en el mundo laboral. (...) Generador de exclusión, el fracaso escolar es en muchos casos el origen de algunas formas de violencia o de extravíos individuales. Estos procesos que desgarran el tejido social hacen que se denuncie a la escuela como factor de exclusión social y al mismo tiempo que se la solicite con insistencia como institución clave de*

*integración o reintegración. Los problemas que plantean a las políticas educativas son especialmente difíciles; la lucha contra el fracaso escolar debe ser, por tanto, un imperativo social” (p. 61).*

Gainera hainbat ikerketatan jasotzen da arazo hau; izan ere, deseskolatzearen ondorioak gaur egun serioagoak dira erabilera beteko denboraldian baino. M. Esterle Hedibelen (2005) “Prevención y tratamiento del absentismo y de la desescolarización en Francia: experiencias y nuevas formas de actuar” artikuluan baieztatzen denez, “*el nivel de formación requerido para ocupar un empleo se ha elevado hoy, y las perspectivas socio-profesionales de los alumnos que dejan el sistema escolar sin título y/o antes de los 16 años se han reducido considerablemente*”.

## 5. PARTE-HARTZAILEEN IRITZIA

### 5.1. IKASTETXEETAKO ZUZENDARITZEN EKARPENAK

Ikuskaritzako Lurralde Buruzatik maiatzean gutun bat bidali zieten absentismoko erregistroren bat izana zuten 112 Ikastetxeetako zuzendaritzei, eta eskutitz horretan eskatzen zitzairen I. Eranskineko ekarpeneko orria betetzeko. Jarraian jasotzen dira erantzun zuten 65 Ikastetxeek emandako iritziak (%58,04):

	Ikastetxe kaltetuen ko.	Erantzun duten ik. kop.	%
BIZKAIA	112	65	58,04

#### 5.1.1. Hobekuntza adierazi duten Ikastetxeen kopurua urteotan zehar ikasle absentisten segimenduari dagokiolarik honako esparru hauetan:

1. Ikastetxera bertaratzeko kontrolean	64 (%98,5)
2. Irakasleen sentsibilizazioan arazo honekin	62 (%95,4)
3. Programa diferentzialak lantzeko jardueran denboraldi absentista baten ostean sartzen diren ikasleentzat	18 (%27,7)
4. Familien erantzunean	35 (%53,8)
5. Udalaren erantzunean	43 (%66,1)
6. Aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko jardueran	35 (%53,8)
7. Beste esparru batzuetan (*)	10 (%15,4)

(\*) Ez dira identifikatzen beste esparru batzuetan gertatu diren hobekuntzak; horiek Ikastetxeen %15,4 islatzen dute.

#### 5.1.2. Aurreko esparruetan zailtasun edo arazoak aurkitu dituzten Ikastetxeen kopurua

1. Ikastetxera bertaratzeko kontrolean	8 (%12,3)
2. Irakasleen sentsibilizazioan arazo honekin	7 (%10,8)
3. Programa diferentzialak lantzeko jardueran denboraldi absentista baten ostean sartzen diren ikasleentzat	19 (%29,2)
4. Familien erantzunean	48 (%73,8)
5. Udalaren erantzunean	21 (%32,3)
6. Aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko jardueran	14 (%21,5)

Hona hemen agertzen diren zailtasun edo arazoen laburpen bat:

#### **Ikastetxera bertaratzeko kontrolean:**

- Zail da neurtzea hutsegitea justifikatua ote denetz.
- Arazoak familiekin harremanetan jartzeko (telefonoz edo helbidez aldatu izana ...).
- Zail da zenbait familiari eskola ordutegia betearaztea, Haur Hezkuntzan batik bat.
- Arazoak sare informatikoarekin (ikasleak bertaratzeko jasotzeko era informatizatu duten ikastetxeetan). Beste Ikastetxe batzuek, ostera, agertzen dute kontrola hobetu egingo luketela hainbat sistemas informatiko martxan jarritz, hutsegiteak orduero jasotzea korapilotsu samarra denez gero.

#### **Irakasleen sentsibilizazioan arazo honekin:**

- Zenbait irakasleren parte-hartzea urria da ikasleen bertaratzearen kontrola. DBH bukatzeko gutxi falta zaien ikasleen kasuan bereziki (urtebete edo gutxiago), zeren irakasleak dagoeneko zer eginik ez dagoelakoan baitaude.
- Beste kasu batzuetan agertzen da kontu honetan dagoen kontraesana. Alde batetik, irakasleek ahaleginak egiten dituzte ikasle guztiak eskolara kontrolez bertaratu daitezzen eta, bestetik, arintasuna sentitzen dute ikasle zehatz batzuk ez doazenean, zeren eta ikaskuntza oztopatzen baitute, ikasgelako erritmoa eta baita diziplina ere zapuztu egiten dutenez gero.
- Bestalde, ez da agertzen irakasleen sentsibilizaziorik eza, ezpada euren ezintasuna familia batzuen lankidetzarik ezaren aurrean.

#### **Programa diferentzialak lantzeko:**

- Zailtasuna martxan jartzeko baliabiderik eza dela eta (pertsonalak batez ere, baina baita lantzeko heziketa espezifikokoak ere). Kasuren batean agertzen da irakasleak zer egin jakiteke daudela ikasleek aurkezten dituzten arazo ugarien aurrean. Lerro berean, badago norbait taldea irakasle bakar batentzat gehiago dibertsifikatzea zaila dela esaten duena.
- Ikastetxerik gehienek PTEko irakasleen errefortzuko orduak ere badarabiltzate ikasle absentistek sartzen direnean laguntzeko asmoz. Kasu batean, adierazten da ezen jantokiko ordutegian Liburutegi baimenduko programa bat burutzen dihardutela Iniciativa Gitanarekin batera, non ikasleek aukera baitute landu gabeko arloak berreskuratzeko. Baina denak kezkatzen dira programa espezifikokoak azaltzeko zailtasunaz, jakin gabe noiz etorriko diren ikasle horiek; horrez gain, datozenean ere bertaratzeko irregulartasuna dute portaera arau.
- Ikastetxeren batek kontrolaren falta sentitzen du Administrazioaren aldetik jarri diren baliabideei eta ikasleen emaitza akademikoei dagokiari.

#### **Familien erantzunean:**

- Ikastetxerik gehienek (%73,8) zailtasunak dituzte esparru honetan. Badaude familia batzuk hezkuntza seme-alaben onerakotzat jotzen ez dutenak, eta horrela ez dituzte justifikatzen hutsegiteak edota justifikagaitza dute justifikatzen, seme-alabei nolakotzat jotzen duten Ikastetxea helaraziz; horrez gain, ez diete erantzuten oharrei, eta

dute adierazten telefonoz edo helbidez aldatu izana, harremana oztopatuz ... Aipatu beharra dago zailtasunak ageri direla argi eta garbi familia batzuetan: ijito eta azokalarien artean.

- Aurrekoaren aitzinean, familia batzuetan beste portaera mota bat gertatzen da: baliotsi egiten dute seme-alaben hezkuntza, baina agian jarraibide ezegoki batzuegatik, guraso eginkizuna erabiltzeari dagokiolarik, seme-alaben adin txiketan hain zuzen ere, une bat heltzen da eta orduan horiek egoeraren jabe bilakatzen dira eta haiek berak dute erabakitzen Ikastetxera ez joatea familiaren aurka egiten duten arren.
- Erakunde guztiek eskola absentismoa saihesteko xedez egiten dituzten ahaleginak oso garrantzitsuak dira benetan, eta horrela familiek eragozten dute arazo horren egoera larria (deseskolatzea eta ez bertaratzea, eskola ikasturtea baldintzatzen dutenak), sor litezkeen ondorioak direla eta. Halarik ere, etenak ez bertaratzeak daude, eta zailtasun larri-larriak eragiten dituzte horrela jokatzeko duten pertsonak gizartean sartzeko eta euren eboluzio akademikorako.

#### **Udalen erantzunean:**

- Oro harl zailtasunak trebetasunik ezean biltzen dira kasurik larrienak konpontzeko orduan, dela Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan bertan, dela Foru Aldundiko Haur Zerbitzura bideratuta.
- Udalei eskatzen zaie kale eta zenbait “lonja” zaintzeko; izan ere, bertan ibil daitezke nerabeak eskola orduetan.

#### **Aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko jardueran:**

- Atal honetan adierazten diren zailtasunik gehienek berriro ere aipatzen dituzte familiekiko harremanen esparruan aurkitutakoak, zentzu honetan: familiak buru-belarri murgildu eta lagundu ezik, absentismo arazoa ez da batere konponduko.
- Bestalde, zail da adin handiagoko kasuak berriro erotea (ia DBH amaitzean). Hori dela eta, azpimarratzen da adin txikietan esku hartu beharra (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloak).

#### **5.1.3. Ikastetxeek eskaintako beste iradokizun batzuk**

- Ikastetxe batzuek aurrera jarraitu beharra agertzen dute eta denok geure ahaleginak jarri eta besteren erantzukizuna gogoan erabili gabe.
- Bestetik Haur Hezkuntzako eta 16 urtetik gorako kasuetan jokatu beharra azaltzen da, derrigorrezko eskolatzeko adinean ez dauden arren, ikaspostu bat betetzen baitute, beste ikasle batzuen kalterako batzuetan, ezin izan dira eskolatu nahi zuten Ikastetxean eta. Dena delarik, azpimarratu egiten da jokatzeko prebentzioko faktorea adin txikietan.
- Gainera, sendoagoak izan beharra ere azaltzen da familientzat etor baitezkeen ondorioetan seme-alabak eskolatu ez izanagatik edo portaera absentista onartu izanagatik (neurri ekonomiko eta legalak). Horrekin batera ere agertzen da familiak “hezi” beharra, seme-alabak hezteko ardura bete ahal izan dezaten, baita seme-alabekin ondo elkar ulertzeko xedez behar diren tresna edo urratsak emateko gogoz ere.

- Ikastetxeren batek baikorki balioesten du hiruhileko fitxa-laburpena, segimendu hobe bat lortze aldera.

## 5.2. OGZ-EN ETA BESTE UDAL ZERBITZU BATZUEN EKARPENAK

EUDELetik igorri zieten gizarte-zerbutzuei eta udal hezkuntza zerbitzuei I. Eranskinean jasotzen den ekarpen-orria. 54 udaletako zerbitzuen bidez bete da, eta horiek bizkaitarren %83,67 dira. Segidan azaltzen dira adierazitako iritziak.

### 5.2.1. Urteotan hobekuntza gertatu dela balioetsi duten Udalen Portzentajea ikasle absentisten segimenduari dagokionez hurrengo esparruetan:

1. Absentismoko egoerak ezagutzean	%71
2. Udal zerbitzuetako profesional sentsibilizazioan arazoon	%76
3. Jokabide diferentzialetan familia eta absentista adingabeekin	%62
4. Familien erantzunean	%57
5. Ikastetxeetako erantzunean	%76
6. Bizkaiko Foru Aldundiko erantzunean	%24 *
7. Aurkitutako kasuak berriro zuzentzean	%67
8. Beste hobekuntza ere batzuk	%29

(\*) Inkesten %33k ez diote erantzuten galderari .

### 5.2.2. Aurreko esparruetan zailtasun edo arazoak aurkitu dituzten Udalen Portzentajea

1. Absentismoko egoerak ezagutzean	%29
2. Udal zerbitzuetako profesional sentsibilizazioan arazoon	%24
3. Jokabide diferentzialetan familia eta absentista adingabeekin	%33
4. Familien erantzunean	%43
5. Ikastetxeetako erantzunean	%19
6. Bizkaiko Foru Aldundiko erantzunean	%43
7. Aurkitutako kasuak berriro zuzentzean	%24
8. Beste hobekuntza ere batzuk	%14

Hona hemen zailtasun eta arazoen arteko laburpena:

#### Absentismoko egoeren ezaguera:

- Betetzerik eza eta hilabeteko parteak bidaltzeko denbora luzea zenbait ikastetxetan.
- Absentismo kasu batzuen berriak beranduegi heltzen dira esku hartzeko, dela ikasleak gainditu duelako derrigorrezko eskolatzeko adina, dela ikasturtean amaitzean ezagutzen dituztelako.

- Zail da esku hartzea absentismo onartu eta justifikatuko kasuetan familiaren beraren aldetik.

#### **Udal Zerbitzuetako profesionalen sentsibilizazioan arazoarekin:**

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen esku soilik uzten da jokabideak burutzea, eta horretan parte har lezaketen beste udal sailak zeregin horretan jardun gabe geratzen dira.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako pertsonala arazo horretan sentsibilizaturik badago ere, batzuetan lanaren zama astuntzat jotzen dute baliabiderik eza dela eta.
- Zailtasunak daude jokabideko estrategia komunak ezartzeko orduan gizarteko hezkuntza-baliabideen artean, hurbiltzeko protokoloak gauzatuagatik ere.

#### **Jokabide diferentzialak burutzean:**

- Anitz arazo ohi datoz familietatik nahiz eta egoera zehatz batzuetarako jokabideak egokitu diren. Sarri samar erantzuna ez da izan espero genuena, portaeran aldaketarik gertatu ez denez gero.
- Familiakiko jokabide diferentzialen egituratze jarduera hobetu den arren, administraziooko berehalako jokabide zehatzen falta sentitzen da; horiek ez dira zigortzeko eta hezkuntzan aldatzeko aukera daukate.
- Kasuetan esku hartu behar duten parteen koordinazioa eta lankidetzaren urriak dira benetan oraindik eta ez daukate behar adina baliabide esku-hartzeari aurre egiteko xedez.

#### **Familien erantzunean:**

- Ez dago benetan asmorik familietan parte hartzeko. Erantzukizun oro dute uzten ikastetxearen esku, ezintasuna agertuz, baina lankidetzaren zehatzik gabe portaera horiek guztiak zuzentze aldera.
- Zaila da beti zinez familiek absentismo sendiaren erantzukizuntzat hartzea.
- Korapilotsu samarra familia sarraraztea ikaslearen adina derrigorrezko eskolatzearen amaieratik oso gertu dagoenean.
- Askotan anitz arazo dituzte familiek, edota krisi egoeretan daude, eta horiek beste esku-hartze batzuk ere behar dituzte ezinbestean; lehenetsita daude eta ez dago horiei erantzun berezirik eskaintzerik.
- Batzuetan ez zaie familiei aurkezten elkarrekin batera egiten den jokabide irudirik ikastetxearen eta gizarte zerbitzuen artean.
- Korapilotsu samarra da familiak onartzen dituen hutsegiteen justifikazioa saihestea.

#### **Ikastetxeen erantzunean:**

- Absentismoa aurkitzean eta prozedurari ekitean aurrerapenak nabaritzen diren arren, oraindik ere badaude zailtasun batzuk Gizarte Zerbitzuei informazioa bidaltzeko orduan komunikabide arruntez (gizarteko hezkuntza txostena) eta absentismoko orriak igortzeko unean ere.
- Badaude ikastetxe batzuk protokoloa barneko antolakuntzan sartuta ez dauketenak, eta zeragatik: batzuetan irakasleek berek agertu dute ez dutela jaso Programa horren berri eta beste norbaitek ere badio hori ezarpen hustzat daukala.



- Kasu batzuetan ez da ulertzen esku-hartzea elkarrekin eginda, “traspasándose el caso” eta erantzukizuna udal zerbitzuen esku-hartzeari buruz.

#### **Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunean:**

- Harremanik eza gainerako eragileekin, kasuotan esku hartzen dutenekin.
- Batzuetan kasuak itzultzen dira beste izapiderik gabe Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara, eurek esku har dezaten.

#### **Aurkitutako kasuak berriro zuzentzean:**

- Alderdion zailtasunik handiena zera da: portaera absentisten kronifikazioa familia batzuetan, izan duten inpuniate sentimenduaren aurrean.
- Kasu batzuk bata bestearen ondotik datoz, eta horietan eskolaratzea hobetu daiteke, baina denboraren poderioz berriro ere gertatzen dira hutsegiteak ikastetxera joateari dagokionez familiaren onespén eta guzti.
- Debora luzeegia eman du aurkitu zenez geroztik aztertzeari ekin arte sartuta dauden erakundeen aldetik.

#### **Gainerako erakundeen erantzunean:**

- Erantzun eta informazioarik eza Hezkuntza Saitetik, Bizkaiko Foru Aldunditik eta Fiskaltzatik, kasu bat udal zerbitzuetara bideratu ostean.
- Esku-hartzerik eza prebentzioaren aldetik.

#### **5.2.3. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta beste Udal Zarbitzu batzuek eskainitako beste iradokizun batzuk.**

- Epe ertainean erantzuna hobetzea horretarako baliabideak sendotuz, Erakunde parte-hartzaile guztien esku-hartzea errazten duten beste programa batzuk lagun.
- Programa zabalago hedatzea eta parte guztiek elkarrekin laguntzea, denek batera egiten duten esku-hartzetat jotzeko xedez.
- Aurrera egitea berehala gauzatzeko neurri administratiboen bila, eta prestazio ekonomikoen parte-hartzeko gabetzea ordezkatzén dute.
- Aldiak hobetzea aurkitutako absentismo kasuak jakinarazteko orduan.
- Irakasleen sentsibilizazioari ekin eta ekin, ikastetxe publikoetan zein pribatuetan, ikasleen bertaratzea kontrolatzeari dagokiolarik.

### **5.3. FORU ALDUNDIKO GIZARTE EKINTZA SAILEKO HAUR ZERBITZUAREN EKARPENAK**

Haur Zerbitzuko teknikari guztiek, Harrera, Balioespen eta Orientabideko Atalekoei dagokiolarik zehatzago –hasiera batean haiei beraiei dagokie gizarteko eragile guztiengandik datozen haurtzaroko babesik ez egoera posibleak balioestea, hain zuzen ere–, eskaintzen dituzte honako ekarpen hauek:

**5.3.1. Hobekuntza gertatu dela balioetsi duten teknikarien portzentajea urteotan zehar ikasle absentisten segimenduari dagokionez honako esparru hauetan:**

1. Absentismo egoeren ezagutzan	%70
2. Haur Zerbitzuetako profesionalen sentsibilizazioan arazo honekin	%75
3. Jokabide diferentzialak lantzeko jardueran familia eta adingabe absentistekin	%60
4. Familien erantzunean	%80
5. Ikastetxeen erantzunena	%73
6. Udalaren erantzunean	%30
7. Aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko jardueran	%85
8. Beste hobekuntza batzuk	%45

**5.3.2. Aurreko esparruetan zailtasun edo arazoak aurkitu dituzten teknikarien portzentajea**

1. Absentismo egoeren ezagutzan	%30
2. Haur Zerbitzuetako profesionalen sentsibilizazioan arazo honekin	%25
3. Jokabide diferentzialak lantzeko jardueran familia eta adingabe absentistekin	%40
4. Familien erantzunean	%20
5. Ikastetxeen erantzunena	%27
6. Udalaren erantzunean	%70
7. Aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko jardueran	%15

Hona hemen agertzen diren zailtasun edo arazoen laburpena:

**Absentismo egoeren ezagutzan**

- Badaude eskola absentismo edo deseskolatzeko kasu batzuk berandu samar aurkitzen direnak esku-hartzea egokia izan dadin eta neraberik gehienek onar dezaten.
- Zailtasunak aurkitzen dira nerabe ijitoen kasuetan esku hartzeko orduan; derrigorrezko eskolatzeko adinean dauden arren, ez dira ikastetxera joaten erritu ijitoz ezkondua daudelarik, eta horrenbestez beste goera batean daudelakoan daude.

**Haur zerbitzuko profesionalen sentsibilizazioan arazoarekin**

- Profesionalak arazoarekin sentsibilizaturik dauden arren, esku-hartze handiagoa behar litzateke Programarekin batera.
- Batzuetan kasu batzuk bideratzen dira balioespen sakonik gabe, eta absentismoa dute adierazle bakarra.

**Jokabide diferentzialak lantzean**

- Desberdina da egoera familiar edo pertsonal bakoitzari egiten zaion erantzuna, baina batzuetan erantzun hori ezin izan da berehalakoa, beste estamentu batzuk ere – judiziala jo dezagun kasu– eraman behar direla eta.

### **Familien erantzunean**

- Deseskolatzea Oinarrizko Gizarte Zarbitzuen aldetik kasua bideratzean oinarrizko osagaia den egoeretan, Haur zerbitzuaren esku-hartzeak berekin eraman du babes-teko neurriak hartzea eta horrek suposatu du tutela administratiboa adingabeei dagokielarik.
- Hala eta guztiz ere, absentismoa beste adierazle bat denean, familien erantzuna positiboa izan da, jarriko ziren neurriak onartu egin baitituzte, hots, familiako esku-hartzeko programei buruz eta baita harrerako zentroetan egoitza gisa hartzeari dagokielarik ere.
- Alabaina, kontuan eduki behar da erantzuna balditzaturik dagoela Haur Zerbitzuaren aldetik proposatutako esku-hartzea onartu ez izanak eduki ditzakeen ondorio legalak direla eta.

### **Ikastetxeen erantzunean**

- Halako zailtasunak ikusten dira, baina ez dago orokortzerik babesteko neurriak martxan jartzeko unean bertan, eta horiek berekin daramate Ikastetxeetako adingabeak kentzea.
- Kasu batzuetan ikastetxeetatik zailtasunak daude idatziz islatzeko xedez esku-hartzea behar duten adingabeei buruzko informazioa.
- Zenbait zailtasun ageri dira esku-hartzeko asmoz elkarrekin batera eragile guztiena, hain zuzen ere.

### **Bizkaiko Foru Aldundiko erantzunean**

- Zailtasun batzuk ageri dira Bizkaiko Foru Aldundiko parateknikoekin batera harremanetan jartzeko xdez.
- Batzuetan mugak daude zinez, babesik gabeko era larriz hartutako kasuak bere gain hartzeko orduan ez da hartzen edota ez da ulertzen gizarteko gainerako eragileen aldetik ere.
- Argi eta garbi dakusagu beharrezkoa dela argitzea iritziak kasuak bideratzeko orduan Bizkaiko Foru Aldundikora eta beste Erakundeetara.

### **Aurkitutako kasuak berriro zuzentzean**

- Babesteko neurriak hartu ondoren Erakundearen aldetik, zaintza administratiboa dagoelarik, absentismoa da zuzentzen, baina kasu batzuetan zeinetan absentismoa gertatzen baita nerabearen baitan zailtasunak gertatzen dira eskolan sartzeko zren eta handia baita esku-hartzerik eza eta motibazioa txkia da Ikastetxera joateko.
- Muturreko kasu batzuetan, kultura ijitoko adingabeei dagokielarik, Errumania eta abarretatik datozela... zailtasunak daude sentsibilizatzeko orduan ikastetxera joan daitezen, sarri etxebizitzaz aldatzeagatik, esaterako.

### **Beste Erakundeen erantzunean**

- Argi nabaritzen da beste erakundeen aldetik Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna berehala eman behar dela, batzuetan kontuan eduki gabe Bizkaiko Foru Aldundiaren jokatzeko esparrua edota galdera legalak, kasuaren eboluzioa zehaztu dezaketena.

### **5.3.3. Haur Zerbitzuak eskainitako beste iradokizun batzuk**

- Dibertsifikatu behar dira programak nerabe batzuentzat, hots, aldi batean ikastetxera joan gabe eman ostean, motibaziorik gabe daudenak.
- Beharrezkoa da komunikabideen kanalak hobetzea eragile guztien artean.
- Aztertu egin behar da zigortzeko neurriak hartzeko bidea.
- Gizarteko eragile guztiak sentsibilizatu beharra dago.
- Beharrezkoa da aztertzea erantzun dibertsifikatuagoak egiteko aukera kultura ijitoko taldeei dagokielarik.

## **6. ONDORIOAK-SINTESIA**

- Ikastetxeetan hutsegitea maiz egiteak kalte handia eragiten du ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoarentzat, eta hori dela eta geroan eragingo ditu baztertze eta marjinazioko egoerak gizartean. Horrez gain, lau urteotan jaso izan diren datuek, praktika onen azterketa sakonak eta ikasketa alderatuek argi eta garbi erakutsi dute eskola absentismoa dabilela “aurkitzaile” on gisa beste arazo batzuei dagokielarik: tratu txarra, berdinen arteko erasoa, osasun arazoakde ..., besteak beste.
- Ikastetxeetako zuzendaritzen ekarpeni dagokielarik, eskola absentismo eta deseskolatzearen kontrako jokabidea hobeto erabiltzeko xedez, hona hemen ondorio batzuk:
  - Zuzendaritzen %98,5ek uste dute hobetu egin dela kontrola Ikastetxera joateko unean.
  - %95,4k agertzen dute irakasleen sentsibilizazioa handiagoa dela arazo horren aurrean.
  - %66,1ek adierazten dute hobetu egin dela Udalaren erantzuna.
  - Portzentaje txikiagoak jasotzen dira beste alderdietan, non aurkitu baitira hobekuntzak. Zehatzago, %53,8k deritzote gertatu direla aurkitutako kasuak berriro zuzentzean eta familiek erantzutean, eta %27,7k programa diferentzialak lantzean ikasle absentisteki laguntzeko Ikastetxeetan berriro sartzen direnean.
- Aurkitzen diren zailtasunei dagokielarik, zera uste dute:
  - %73,8k deritzote zailtasunik handiena dela lankidetzarik eza absentismo arazoak berriro zuzentzeko xedez edota familien erantzuna. Dela eurek berek ez dutela balioesten hezkuntza seme-alabentzako onura gisa, dela arras

etsita daudela seme-alaben aurkako jarreraren aurrean, eta ez dira batere gauza egoera zuzentzeko.

- Portzentaje txit txikiago batean beste zailtasun batzuk ere jasotzen dira, eta horiexek dituzte, hain zuzen, Ikastetxeek. %32,3k esaten dute zailtasunak daudela Udalaren esku-hartzean; horren haritik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta eskola bitartekarien jokabideaz gain, Udalaren esku-hartzea eskatzen da kaleetan eta eskola orduetan nerabeeek erabitzen dituzten lonjetan zaintzailak egon daitezen. %29,2k zailtasuna agertzen dute programa diferentzialak lantzeko orduan, %21,5ek aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko bidean, %12,3k Ikastetxera bertaratzeko kontrolean eta %10,8k irakasleek arazoa gainditu ez izanagatik sentitu duten ezintasuna.
  - Aurreko urteetan bezala, Ikastetxeetako Zuzendaritzek behin eta berriro erakusten dute jokatu beharra adinik txikienetatik. Bestetik familiekin esku hartzea ikuspuntu bikoitz batetik: hezkuntza, euren guraso eginkizunetan egoki eta zuzen jardun dezaten, eta behartu beharra, zeren seme-alaben hezkuntzarako eskubidea bermatu ez izanak eragiten baitu zenbait ondorio txar berehala (horiek, larritasunari jarraiki, ekonomiko eta/edo judizialak izango lirateke). Bestetik, Hezkuntza Administratiboari eskatzen zaio “kontrola ditzan” inbertitutako baliabide ekonomikoak ikasle absentistekin (ikaspostuak, bekak...). Azkenik, Ikastetxean “sartzen” diren ikasleentzako programa diferentzialak lantzeari dagokiolarik, etsipena dute agertzen argi eta garbi, eta dagoeneko ez bakarrik burutzeko baliabiderik ezagatik, baizik eta batez ere jasaten duten zailtasun handiagatik, jakin gabe noizko eta no-rentzat dauden zuzenduak, absentista batzuek sarri samar giten baitute huts.
- Udal Zerbitzuetako profesionalen iritziari dagokienez programan gertatu diren hobekuntzei buruz, hona hemen hurrengo ondorioak:
- %76k uste dute hobetu egin dela udal zerbitzuetako profesionalen sentsibilizazioan eta ikastetxeen erantzunean.
  - %71ek dio absentismoaren egoeren ezagutza areagotu egin dela, eta portzentajea gutxixeagoa, %76, aurkitutako kasuak berriro zuzentzeko zereginari dagokiolarik.
  - %62k adierazten du hobetu egin dela jokabide diferentzialak gauzatzea familiekin eta adingabe absentistekin, eta %57k familien erantzuna ere hobetu dela.
  - Azkenik, %24k berresten dute Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna hobetu dela.
- Orain ere aurkitzen diren zailtasunei dagokiolarik, zera ateratzen da ondorio gisa:

- %43k deritzate familiak ez daudela arras sartuta, eta ez dutela batere erantzukizunik onartzen. Arazorik handienak familiek onartzen eta justifikatzen duten absentismoa dagoenean sortzen dira, eta adingabeak derrigorrezko eskolatzearen amaiera gertu duenean. Portzentaje berak dakusa zenbait zailtasun Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunean, eta eragileen arteko harremanak eramatea eta kasuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bihurtzea dute gune.
  - %33k uste dute arazoak daudela jokabide diferentzialak gauzatzeko orduan familiekin, bai beraien ezaugarriengatik, bai erakundeen arteko koordinazioa hobetu beharragatik; zehatzago, tarteko eta une zehatzeko jokabideen falta sentitzen dute administrazioari dagkiolarik eta ez zigortzeko eraz.
  - %29k erakusten dituzte zailtasunak absentismo egoerak ezagutzeko orduan, hileroko parteak bete ez izanagatik, edo berandu edo bete gabe heltzeagatik.
  - %24k uste dute arazoak daudela udal zerbitzuetako profesionalen sentsibilizazioan eta aurkitutako kasuak berriro zuzentzean. %19k zailtasunak aurkitzen ditu ikastetxeetako erantzunetan informazioa igortzerakoan eta esku hartzeko zeregina bere gain hartzerakoan. Eta azkenik, %14k zailtasunak ikusten ditu beste hobekuntza batzuetan, erakundeko koordinazio eta prebentzioarekin lotuta.
  - Bestalde, udal zerbitzuetako profesionalak iradokitzen dute baliabideak sendotzea, programa zabalago hedatzea, lankidetzeta eta komunikazio denborak hobetzea, neurri ordezkagarriak bilatzea prestazio ekonomikoak jasotzea bertan behera uzteari buruz, eta sentsibilizazio handiagoa irakasleetan.
- Haur Zerbitzuetako profesionalen iritziaz dagokionez programan sortutako hobekuntzei buruz, hona hemen ondorioak:
- %75ek uste dute hobekuntza egon dela arazootan diharduten profesionalen sentsibilizazioan.
  - %70ek deritzate espezifikazio eta arreta handiagoak gertatu direla adierazle horri dagokiolarik kasuaren larritasunaren balioespenean osagai garrantzitsua gisa.
  - %60k uste dute erantzun diferentzialak hobetu direla familiekin eta adingabe absentistekin.
  - %80k balioesten dutela baikortzat familiaren jarrera proposatutako eskuhartzeetan.
  - %73k uste dute egokia dela ikastetxeetako erantzuna.
  - %30ek balioesten dute hobetu dela iritzia bideratzeko kasuetan deseskolatzeko arazo espezifikoenengatik.
- Aurkitzen diren zailtasunei dagokiolarik, zera atera daiteke:

- Programako sentsibilizazioa hobetu den arren, uste dugu hobetu beharra daukagula esku-hartzea Haur Zerbitzuko teknikarien aldetik.
  - Zailtasunak ikusten dira beste eragile batzuek Haur Zerbitzuak izan ditzakeen jokabide mugak ulertzeko orduan, arlo juridikoan batik bat, baita Haur Zerbitzuaren eskuduntza esparrua onartzekoan ere; horrek babesik ez larriko egoerak ditu aztertzen, eta horretan absentismoaren adierazlea beste bat da kasuaren balioespen orokorrean.
  - Neurriak aztertu behar dira biztanleria ijitoaren eremuan kokatuak nola ikastetxera joateko sentsibilizaioari dagokionez hala Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bukatu arte jarraitzeari dagokiolarik.
  - Aurkitutako kasu batzuetan bideratzea batera egiten da Adingabeen Fiskaltzara zein Haur Zerbitzura, eta gertaera horretatik atera daiteke beharrezkoa dela bideratzeko irizpideak argitzea.
- Arazo horrek 2006-2007 ikasturtean zehar Bizkaian duen dimentsioari dagokiolarik, hona hemen ondorioak:
- Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen kopurua 1.106 da orotara (Oinarrizko Hezkuntzako lagunen %1,2). Kopuru horrek gutxiago adierazi du (29 kasu) joan den ikasturtekoaren aldean. Ikasturteon zehar absentismoaren agerpenik larrienak ere gutxiago dira eta joan den ikasturtean baino gehiago zuzendu dira.
  - Ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %1,5ek eta DBHkoen %2,8k portaera absentista izan dute.
  - Ikastetxe pribatu itunduetan portaera hori izan duten ikasleak %0,3 da Lehen Hezkuntzan eta %0,6 DBHn.
  - Portaera absentista metatua ikasturtean zehar Lehen Hezkuntzan aztertuz gero, portzentajerik handiena %25eko tartean dago. Hau da, absentisten %88,9k galdutako eskola egunek Ikastetxe Publikoetako Lehen Hezkuntzan eta %90,9k Ikastetxe Pribatu itunduetakoetan ikasturtean zehar ez dute gainditzen bakoitzeko urteko eskola denboraldiko guztien %25.
  - DBHn, absentismoko portzentajerik handiena ere –%66,1 Ikastetxe publikoetan eta %72,7 Ikastetxe pribatu itunduetan, %25raino biltzen da tartean–, apalagoa da Lehen Hezkuntzako datuekin konparatuz gero. Aitzitik, nabari areagotzen da absentisten kopurua portzentajerik handiena daukan egun galduen tartean (%75 baino gehiago), eta %10,5 lortzen du Ikastetxe publikoetan eta %5,9 Ikastetxe pribatu itunduetan, deseskolatuen datuak eransten baldin baditugu.
  - “Absentismo zuzendu”ari dagokionez, erregistrorik ez egote gisa ulertuta apiril, maiatz eta ekainean zehar gutxienez, Ikastetxe publikoetan Lehen

Hezkuntzako ikasle absentisten %63,4 izan da eta DBHko %55,1; eta Ikastetxe pribatu itunduetan %67,5 Lehenan eta DBHko %59,4. Azken datuok jartzen gaituzte arazoaren dimentsio zehatzago batean. Hartara, el absentismorik larrienak –ikasturte osoan zehar dirau tinko– Lehen Hezkuntzako 167 ikasleri eragiten die (%0,3) eta DBHko 252ri (%0,7). Oro-tara Oinarrizko Hezkuntzako 419 ikasle (%0,5)

- Ikasle deseskolatuei dagokienez, ikastetxe publikoetan %0,07 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,25 DBHn. Ikastetxe pribatu itunduetan ez da erregistratu deseskolatzerik Lehen Hezkuntzan, eta DBHn %0,04 izan da.
  - Haur Hezkuntzan ikastetxe publikoetako ikasleen %1,4k portaera absentista izan dute, eta %0,3k Ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta deseskolatzea handiagoa da ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %1,9 eta DBHn %3,07) Ikastetxe pribatu itunduetan baino; Lehen Hezkuntzan %0,23 daukate eta DBHn %0,55. Ezberdintasun honek erlazio estua dauka jende baztertuaren portzentajearekin arlo ekonomiko, familiar, sozial edo kulturalari dagokiolarik, ikastetxe batean edo bestean eskolatzeko orduan; oro har handiagoa da sare publikoetan, eta nolahi ere ezberdina bakoitza kokatuta dagoen eskualdearen arabera. Izan ere, ikasle absentistak ez dira banatzen era proportzionalan Lurralde osoan, baizik eta bi eskualdek (Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeak) ikasle horien %94,3 hartzen dute beretzat.
  - Absentismo eta/edo deseskolatze arazoak direla eta kalteturik geratu diren ikastetxeak ikastetxe publikoen %32,5 izan dira eta pribatu itunduen %21,9. Portzentajea eskaintzeko asmoz 6 ikasle absentista edo gehiagoko irizpidea baldin badarabilgu ikastetxe bakoitzean, orduan ikastetxe kaltetuen portzentajea ikastetxe publikoen %17,5 litzateke eta pribatu itunduen %6,6. Ikastetxeok absentismo eta deseskolatzeko mapa zehatz bat marrazten dute eskualdeka:
    - Bizkaian kalterik gehien jaso duten eskualdeak, lehenago esan den legez, Ikuskaritzako 3 eta 4. eskualdeei dagozkienak dira. Zehatzago Bilboko zenbait auzuneri dagozkie (Otxarkoaga, Casco Viejo, San Francisco, Zabala...) eta Basauri, Barakaldo, Portugaite eta Sestao udalerrietako auzotegi batzuei.
  - Badago irizpide are zorrotzago bat –ikastetxe kaltetuzat jotzeko ikasleen %20 edo gehiago portaera absentista eta/edo deseskolatuarekin–, egoera honetan zortzi Ikastetxe publiko eta bi Ikastetxe pribatu itundu jartzera eramaten gaituena.
  - Azkenik, zera behar da agertu: arazoaren dimentsioa definitzeko xedez erabilitako portzentajeak Hezkuntza Sistemaren zatitxo bati dagozkioen arren, ez ditugu gauza batzuk ahantzi beha.



- 1º Kaltetuak –kopuru absolututan 1.106– 6 eta 16 urte bitarteko ikasleak dira, eta euren derrigorrezko eskolatzeta da gizarteak ezarritako mekanismoa, hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera, eta ez da benetan gauzatzen, egia esan.
- 2º Prebentzioz eta era sintomatikoan ez jotatzeak, familien gainean esku hartu behar duten Botere Publikoen erantzukizuna bete ez izana adierazteaz gainera, berekin ere badakar geroko gizarte bazterketa eragiten duen kausaetariko bat ez ezabatzea.

## 7. PROPOSAMENAK

Batzordeak, sartuta daude profesionalen ekarpenak, gure inguru hurbilean eta beste errealitate batzuetan aplikatzen diren irtenbideak eta prozesuaren balioespina bera kontuan edukita, deritzo beharrezkoa dela segidan datozen hobetzeko proposamenak aurkeztea, eta ia guztiak joan den ikasturteko txostenean ere azaldu zirelakoan daude.

- Hezkuntza Sailburuordetzaren aldetik eta haurtzarora eta nerabezarora babesteko sartuta dauden beste Erakundeekin batera martxan jar litezke komunikabideetan hainbat sentsibilizazioko kanpaina, oro har jendeari zuzendutako eta derrigorrezko eskolatzeko adinean dauden seme-alabak dituzten familiei zehazki; kanpainotan islatzen da potentzial aldagarria, hezkuntzak duen gizarte bazterketaren kontra dagoena.
- Arazo hori zabala dela eta, (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria bete gabeko oinarrizko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharko litzaioke sartuta dauden Erakunde guztien aldetik, eta horrexek kontenplatu beharko lituzke eraginik handiena jasan duten eskualde eta Ikastetxeak alde batetik, eta kasuak banaka aztertu bestetik. Edozein egoeratan lehentasuna eman behar zaie adinik txikiak dituztenei eta absentismorik larrienari, ikasturte osoan zehar dirauenari, eta esku-hartzea eta segimendua bermatuak egongo dira harik eta sartuta dauden haur eta nerabeen eskola egoera normaldu arte.
- Absentismo mota bakoitzaren zergatiak aztertzeke zereginetan sakontu behar litzateke, zio horiexen arabera neurri zuzentzaileak eraginkorrenak proposatzeko xedez. Neurriok hainbat jasotzaile izango dituzte, jakina, hezkuntza aldiei jarraiki. Lehen Hezkuntzan familiak izango dira batik bat, baina DBHn baita ikasleak berak ere, eta dagozkien ikastetxeek ere hartuko dute esku.
- Beharrezkoa izango litzateke prebentzioa areagotzea Haur Hezkuntzan, zeren eta oinarrizko irakaskuntzako absentismo eta/edo deseskolatzearen zati bat baitago dagoeneko derrigorrezkoa ez den aldi honetan.
- Gainera, beharrezkoa ere izango litzateke Adingabeen Fiskaltzarekin eta/edo dagoen instantzia judizialarekin harremanetan egotea Hezkuntza Sailburuordearen bitartez, txosten horretako datuak jakinarazi eta Botere Publikoen erantzukizuna eta familiei dagokienez hartu beharrezko neurriak batera aztertzeke, baztertuak dauden ikasleentzako hezkuntzarako eskubidea betetzeko xedez.

- Komeni izango litzateke EAEko txosten hau Arartekoari bidaltzea, arazoaren dimentsioaren jakitun egon dadin.
- Halaber, komeni izango litzateke Hezkuntza Saitetik urrats egokiei ekitea erakundeen arteko esku-hartzeko protokolo bat sinatu ahal izateko Araba eta Gipuzkoan, sartuta dauden erakundeen jokaera komun eta koordinatu bat bermatzeko xedez (Foru Aldundiak, Udaletxeak eta Lurralde Ordezkaritzak).
- Ikastetxeetako Zuzendaritzatik edo egoki litzatekeen aldetik beharrezkoa izango litzateke irizpideak zehaztea ikasleen artean absentismoaren indize handia duten ikastetxeak irizpide diferentzialekin tratatu ditzaten LPZri, ikastetxe horietan langileak izendatzeari, heziketa proposamenei, hornikuntza ekonomikoari... dagokienez. Horrela aurreikusten du Euskal Eskola Publikoko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, eta 10. artikulua zera xedatzen du: *“para hacer efectivo el principio de igualdad y de supresión de las situaciones de discriminación existentes, en los Presupuestos Generales de la CAPV de cada año se recogerán los créditos que hayan de integrarse en un fondo de compensación que posibilite la mejor distribución de los recursos”*. Halako irizpide diferentzialok ikasleak laguntzeko egitasmo eta/edo planen zerrendari atxikiak lihoazke.

Zehatzago eta lehen urrats gisa, lehentasuna ematen zaie indizea %20tik gora duten ikastetxeei (11 Ikastetxe publiko eta 2 pribatu itundu). Ikastetxe horiek, Ikastetxe publikoen kasuan, irakasle erdi bat gehiagoz hornitu beharko lirateke langileen artean, eskola absentismoko arduradun lanean, eta hauexek lirateke beraren eginkizunak: hileko eta hiruhileko erregistroak azkartu eta kasu bakoitzeko segimendua eta esku hartzen duten Erakundeetako arduradunekiko berne eta kanpoko koordinazioa bere gain hartzea. Baliabide berbera azaltzen da Ikastetxe pribatu itunduen kasuan, eta irakasle erdi batez hornitzea dagokion diru-laguntzaz gauzatuko da.

## 8. ESKER ONAK

Hobekuntzako osagai asko aurkitzen diren arren –horiek jaso dira txostenean zehar eta eskola absentismoko arazoa ez da oroz konpondu–, esan beharra dago segimenduko batzordeak Programa aplikatzeko lau ikasturteotan zehar aukera izan du ahalegin asko ikusteko profesionalak eta Erakundeek gauzatuak praktikan jartzeko unean. Azpimarratu behar da bereziki absentismoa eta deseskolatzea aurkitzeko zereginetan gauzatu den lan handia, jasotako informazioa erabili izana, arazoari era sektorialean heltzeko ekimenak martxan jartzea eta eraginkortzat jotzen ziren irtenbideei idealak ez ziren egoeretan eustea. Halaber, nabarmentzen dira emandako urrats garrantzitsuak sartuta dauden Erakunde eta profesionalen koordinazioetan. Horri orori esker argi utz daiteke ikasturtero eta gardentasun handiagoz absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa geure Lurraldon, eta gero eta gehiago dira laguntza jasotzen duten ikasleen portzentajea; hainbat esku-hartze mota daude laguntzeko xedez eta, edozelan ere, nabarmen murrizten ari da eskola porrota eta gizarte bazterketa sortzen dituen arazo handi hori.

Hementxetik bihoa gure esker ona.

Bilbon, 2008ko urtarrilaren 21ean

### SEGIMENDUKO BATZORDEA

#### Hezkuntza Konpentsatzaileko Partzuergoa

- Mikel Ubillos

#### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

:

- Inmaculada Cereceda
- Almudena Gabiola
- Candi Hernández

#### Bizkaiko Foru Aldundia

- Alazne Madinabeitia
- Nagore Zubiaur

#### EUDEL

- Dorleta Goiburu
- Manuela González
- Iñaki Iglesias
- Javier Ruiz

# ERANSKINAK

## I. ERANSKINA

### Iritziak jasotzea:

- **Ikastetxeetako Zuzendaritzak**
- **OGZ eta beste Udal Zerbitzu batzuk**
- **BFAko Haur Zerbitzua**

## ZUZENDARITZAREN EKARPENAK JOKABIDEA HOBETZEKO XEDEZ ESKOLA ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEAREN AURKA.

Nahi genuke zuen iritzia jakin Hezkuntza Ikuskaritzaren aldetik egituratutako prozesuari buruz, ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko xedez, seme-alabak Ikastetxera joateko behar adinako arretarik agertzen ez duten familien kasuetan bereziki. Premiazkoa da benetan laugarren ikasturteon zuen balioespen eta iradokizunak ekartzea honako kontu hauei buruz:

1. Ea hobekuntzarik gertatu ote den urteotan zehar ikasle absentisten segimenduari dagokionez, honako esparru hauetan:

*(Gurutze bat jarriko da dagokion tokian eta hobekuntzarik adierazgarrienak zehaztuko dira)*

- |  |                              |                             |
|--|------------------------------|-----------------------------|
| ✓ 1.1. Ikastetxera bertaratzearen <b>kontrolean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.2 Irakasleen <b>sentsibilizazioan</b> arazo horren aurrean   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.3 <b>Programa diferentzialak</b> lantzean denboraldi absentistaren ostean sartu berri diren ikasleentzat | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.4 <b>Familien erantzunean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.5 <b>Udalaren erantzunean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.6 Aurkitutako kasuak <b>berriro zuzentzean</b>   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.7 Beste hobekuntzarik  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |

2. Aurreko esparru bakoitzean azaldu Ikastetxean oraindik ere badirauteen zailtasun edo arazoak, zerari buruz:

- ✓ Bertaratzearen **kontrola**
  
- ✓ Irakasleen **sentsibilizazioa**
  
- ✓ **Programa diferentzialak** lantzea
  
  
- ✓ **Familien erantzuna**
  
  
- ✓ **Udalaren erantzuna**
  
  
- ✓ Kasuak **berriro zuzentzea**
  
  
- ✓ Besterik

3. Beste iradokizunen bat

Mila esker zuen laguntzatik

**UDAL TALDEEN EKARPENAK JOKABIDEA HOBETZEKO XEDEZ ESKOLA ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEAREN AURKA.**

Nahi genuke zuen iritzia jakin “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentismoa eruzteko Bizkai Lurraldean” egitasmoaren aldetik egituratutako prozesuari buruz, ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko xedez, seme-alabak Ikastetxera joateko behar adinako arretarik agertzen ez duten familien kasuetan bereziki. Premiazkoa da benetan laugarren ikasturteon zeuen balioespen eta iradokizunak ekartzea honako kontu hauei buruz:

4. Ea hobekuntzarik gertatu ote den urteotan zehar ikasle absentisten segimenduari dagokionez, honako esparru hauetan:

*(Gurutze bat jarriko da dagokion tokian eta hobekuntzarik adierazgarrienak zehaztuko dira)*

- |  |                              |                             |
|--|------------------------------|-----------------------------|
| ✓ 1.1. Zure udalerrian dauden absentismoko egoerak <b>jakitean</b>                   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.2 Udal Zerbitzuetako profesionalen <b>sentsibilizazioan</b> arazo horren aurrean | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.3 <b>Jokabide diferentzialak</b> lantzean familia eta adingabe absentistekin     | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.4 <b>Familien erantzunean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.5 <b>Ikastetxeen erantzunean</b>   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.6 <b>Foru Aldundiaren erantzunean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.7 Aurkitutako kasuak <b>berriro zuzentzean</b>                                   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |

✓ 1.8 Beste hobekuntzarik

BAI  EZ

Aurreko esparru bakoitzean azaldu Ikastetxean oraindik ere badirauren zailtasun edo arazoak, zerari buruz:

- ✓ Absentismoko egoerak **jakitea**
- ✓ Udal Zerbitzuetako profesionalen **sentsibilizazioa**
- ✓ **Jokabide diferentzialak** lantzea
  
- ✓ **Familien erantzuna**
  
- ✓ **Ikastetxeen erantzuna**
- ✓ Foru Aldundiaren **erantzuna**
  
- ✓ Kasuak **berriro zuzentzea**
  
- ✓ Besterik

5. Beste iradokizunen bat

Mila esker zuen laguntzagatik



## HAUR ZERBITZUEN EKARPENAK JOKABIDEA HOBETZEKO XEDEZ ESKOLA ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEAREN AURKA.

Nahi genuke zuen iritzia jakin “Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: deseskolatzea eta eskola absentis-  
moa eruzteko Bizkai Lurraldean” egitasmoaren aldetik egituratutako prozesuari buruz, ikasle guztien hezkuntzarako  
eskubidea bermatzeko xedez, seme-alabak Ikastetxera joateko behar adinako arretarik agertzen ez duten familien  
kasuetan bereziki. Premiazkoa da benetan laugarren ikasturteon zeuen balioespen eta iradokizunak ekartzea honako  
kontu hauei buruz:

6. Ea hobekuntzarik gertatu ote den urteotan zehar ikasle absentisten segimenduari dago-  
kionez, honako esparru hauetan:

*(Gurutzetatu bat jarriko da dagokion tokian eta hobekuntzarik adierazgarrienak zehaztuko dira)*

- |   |                              |                             |
|---|------------------------------|-----------------------------|
| ✓ 1.1. Absentismoko egoerak <b>jakitean</b>   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.2 Haur Zerbitzuetako profesionalen <b>sentsibilizazioan</b> arazo horren aurrean  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.3 <b>Jokabide diferentzialak</b> lantzean familia eta adingabe ab-<br>sentistekin | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.4 <b>Familien erantzunean</b>   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.5 <b>Ikastetxeen erantzunean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.6 <b>Udal Zerbitzuen erantzunean</b>  | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.7 Aurkitutako kasuak <b>berriro zuzentzean</b>                                    | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |
| ✓ 1.8 Beste hobekuntzarik   | BAI <input type="checkbox"/> | EZ <input type="checkbox"/> |

Aurreko esparru bakoitzean azaldu Ikastetxean oraindik ere badirauren zailtasun edo arazoak, zerari buruz:

- ✓ Absentismoko egoerak **jakitea**
- ✓ Haur Zerbitzuetako profesionalen **sentsibilizazioa**
- ✓ **Jokabide diferentzialak** lantzea
- ✓ **Familien erantzuna**
- ✓ **Ikastetxeen erantzuna**
- ✓ Udal Zerbitzuen **erantzuna**
- ✓ Kasuak **berriro zuzentzea**
- ✓ Besterik

7. Beste iradokizunen bat

Mila esker zuen laguntzagatik